

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa eta Arabako Ogasunek iruzur fiskalaren aurkako informazioa trukatzeko hitzarmen bat sinatu dute

Hiru euskal aldundiekin dauden akordioak osatu dira eta, horrenbestez, Bizkaikoarekin eta Gipuzkoarekin dagoen elkarlana zabaldu da

Lunes, 29 de febrero de 2016

Nafarroako Zerga Ogasunak eta Arabako Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu dute Gasteizen eta, haren bitartez, zerga-informazioa trukatu ahalko da, alde batetik, iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko, eta bestetik, zerga bidezko diru-bilketa hobetzeko: BEZa eta Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, esaterako.

Hitzarmena Nafarroako Ogasuneko zuzendari-kudeatzaile Luis Esanek eta Ogasun nahiz Finantzetako diputatu arabar Jose Luis Cimianok izenpetu dute.

Hitzarmenari esker, Nafarroak eta Arabak informazio fiskala trukatzeko "sistema egonkor eta elkarrekiko" bat partekatu ahalko dute.

Zehazki, langile teknikoek beste erakundearen datu-basera jo ahalko dute kudeaketa hobetzeko eta pertsona fisikoek, autonomoek eta enpresek zergak ordaindu dituztela egiaztatzeko. Gainera, akordio horrekin, bi lurraldeen arteko eragiketa jakin batzuk egitera behartutako pertsona zergadunen kudeaketak erraztuko dira.

Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari-kudeatzailea gustura agertu da hitzarmen hau izenpetu izanagatik; haren arabera, adierazi du, "bi lurraldeek informazioa trukatu ahalko dute zergadunen arreta hobetzeko eta iruzurraren aurka eraginkorragoak izateko, gizarte modernoetan helburu nagusi bat dena". Esainek azpimarratu duenez, gainera, izenpetze horrekin hiru euskal aldundiekin lortutako akordioak osatzen dira; hala, 2014. urtetik [Bizkaikoarekin](#) eta [Gipuzkoarekin](#) zegoen elkarlana zabaltzen da.

Iruzur fiskala kontrolatzeko, Nafarroako Ogasunak azken urteotan ere lankidetzeta-hitzarmenak sinatu ditu Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioarekin, Iruñeko Udalarekin eta Notariotzaren Kontseilu Nagusi eta



Ogasun eta Finantzetako diputatu arabar José Luis Cimiano (ezkerrean), Nafarroako Ogasuneko zuzendari-kudeatzaile Luis Esáinekin.

Iruñeko Notarioen Elkargoarekin, besteak beste.